



HEZKUNTZA SAILA BERRIAREN AURKEZPENA

Hauteskunde kanpaina amaitu da

Atzo, otsailaren 4an, Hezkuntza Sail berriak bere aurkezpen formala egin zuen hezkuntzako sindikatuen aurrean. Bilerak eduki eskasa izan bazuen ere, adierazpen esanguratsu eta kezkarriak entzun genituen bertan.

Hezkuntza Sailburuak lan ildoak otsailaren 11an aurkeztuko omen ditu Legebiltzarrean, baina egoera ekonomikoa larriagatik hezkuntzan murrizketak egongo direla aurreratu zigun sindikatuoi. Bestetik, LOMCE legea orain arte aldatzeko aukerarik ez dutela izan adierazi zuten, baina legebiltzarreko ibilbidean lanean jarraitzeko asmoa badute.

STEE-EILASen aldetik, Administrazioari interlokuzioa bermatzea eskatu zitzaion, bai esparru laboralari dagokionez (lan hitzarmenen negoziazioak martxan jarri behar dira) baita hezkuntzako gaietarako ere. Gure ustez, murrizketa gehiegi izan dira orain arte hezkuntzako alorrean eta gure lan baldintzetan. Hezkuntzako inbertsioa handitzeko garaia dela adierazi genuen. Azkenik, LOMCE legeari dagokionez, ez aplikatzeko konpromezu irmoa eskatu genien.

Hezkuntza Sailburuarekin hitzegiteko prest izanik ere, kezkaturik gaude gobernu berriak eman dituen lehen urratsekin. Batetik hauteskunde garaian esan zutenaren kontra, gutxituko omen dutelako hezkuntzarako gastua, murrizketa berriei atea irekiz; bestetik, LOMCE legearen aurrean jarrera oso epela adierazten ari direlako, euskal hezkuntza sistemarekin zerikusia dugun hezkuntza eragile gehienek kezka eta haserreari jaramonik egin gabe.

Norabide horretan STEE-EILASekin egingo dute talka.



PRESENTACIÓN FORMAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Terminó la campaña electoral

Ayer, 4 de febrero, el nuevo Departamento de Educación hizo su presentación formal a los sindicatos de enseñanza. La reunión fue de poco contenido, pero hubo manifestaciones sumamente preocupantes.

El Departamento presentará sus líneas de actuación el día 11 en el Parlamento Vasco, pero se nos adelantó que las directrices económicas que vienen de hacienda son claras y no dejan lugar a dudas: habrá recortes en educación. Respecto a la LOMCE, no han tenido ocasión de introducir modificaciones hasta ahora, pero lo intentarán a lo largo de su tramitación parlamentaria.

Por parte de STEE-EILAS, reivindicamos que se garantizara la interlocución con los sindicatos tanto en lo referente a temas estrictamente laborales (hay que activar las negociaciones de los convenios), como a la política educativa. En nuestra opinión son ya excesivos los recortes que venimos sufriendo en el ámbito educativo y en nuestras condiciones laborales. Señalamos también que es tiempo de aumentar la inversión en educación. En relación a la LOMCE, emplazamos al Departamento a no aplicar la LOMCE.

Manifestamos nuestra disposición a seguir hablando con el Departamento, aunque consideramos muy preocupantes sus primeras manifestaciones. Por una parte, contrariamente a lo que afirmaban en su campaña, parecen dispuestos/as a recortar aún más el gasto en educación, abriendo la puerta a nuevos recortes; Por otra, mantienen una actitud un tanto tibia en relación a la LOMCE, ignorando el enfado y preocupación con la que la contemplamos la mayoría de los agentes educativos del sistema educativo vasco.

De continuar por ese camino se encontrarán frontalmente con STEE-EILAS.